


ARISTEGIETA BASERRIA
A MAILA**PILLOTEGI BIDEA 58-60****Egile eta data ezezagunak****Deskribapena**

XVIII. mendearen amaiera aldean eraiki zuten. Landa jauregitxo gisa nabarmentzen da, aparteko kokapenean: Igeldo mendiaren magalean, zelai batean eta hegoaldera orientatuta. Jatorrian, Caracaseko Errege Konpainiako armadore baten familiarentzako etxebizitza izan zen, etxeko zerbitzurako beste gela batzuk biltzeaz gainera. Baina, ondoren bi zatitan banatu dutenez, bereizitako bi etxebizitza daude. Oinplano nabarmen karratua du, 400 m²-tik gorakoa. Lau hormartetan zatitzen da, bi pilare errenkadaren eta gailurrarekin bat datorren Erdiko horma baten bidez. Horma hori zeharkako beste batekin gurutzatzen da fatxadaren aurretik, hormarte nagusia libratzeko. Hormarte nagusia ezkaratzak hartzen du behe oinean, eta logela hoberenek lehen oinean. Hiru isurkiko estalkipea ganbaratzen erabiltzen da, eta iparraldeko fatxadaren inguruko eremuak ukuilu, lastategi eta biltegi gisa. Baserriaren eraikuntza eta xehetasunak hiri jauregitxoaren tradizio barrokoarekin daude lotuta, honako ezaugarri hauei dagokienez: baoen inguruko harlanduaren hedadura, solairuko inpostaren marrazkia, balkoiaren mentsulak eta, batez ere, fatxadaren bi elementu nabariak, hau da, ezkaratzaren arku eliptikoa eta Aristegieta etxearen armarrria.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berriazko erregimena:
Kultura ondasun gisa, monumentu kategoriaz, kalifikatu izanaren ondoriozkoa, ekainaren 29ko 132/2004 Dekretuaren bidez (138. EHAA, 2004-07-21ekoa).
- * Eragindako ingurunea: adierazitako dekretuak mugatutakoa. Dekretu horretan, mugaketa literario hutsa da eta, hain zuzen, horregatik, erantsita doan grafikoan jasotakoa mugaketa horren hurbilketa bat da eta gutxi gorabeherakoa da.